## 2001-05 idazlan laburra

### 1. idazlana

**Gaia**:
Supermerkatuko produktuen errotulazio elebiduna kendu dute.

**Egitekoa**:
Bezero ez ezik, auzoko Euskara Taldeko partaide ere bazara, eta produktuen errotulazio elebiduna kendu dutenez, supermerkatuko arduradun nagusiari kexa-gutun bat idatzi behar diozu taldearen haserrea adierazteko.

**Nahitaez eman behar duzun informazioa:**

- → Errotulazio elebidunaren aldeko jarrera adierazi eta arrazoitu.
- → Taldekideen haserrea adierazi.

### 2. idazlana

**Gaia**:
Ikastetxeko jantokiko menutik behikia kentzea.

**Egitekoa**:
Ikasle baten gurasoa zara eta "behi eroen" gaitza dela-eta, ikastetxeko zuzendariari eskabidea egin behar diozu jantokiko arduradunarekin hitz egin dezan behikia eguneroko menutik kentzeko.

**Nahitaez eman behar duzun informazioa:**

- → Nor zaren eta zure kezkaren nondik norakoak zein diren azaldu.
- → Zuzendariari bitartekari lana egin behar duela garbi adierazi.